

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakaria izan da Hiru Behien Zergaren ekitaldian

Uztailaren 13an egin ohi den moduan, Erronkari eta Baretos ibarretako alkateek San Martingo Harriaren (Izaba) gaineko akordioa berritu dute

Asteazkena, 2016.eko uztailak 13

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos Ernazko (Izaba) parajeetan izan da gaur eguerdian Hiru Behien Zergaren ekitaldian, indarrean dagoen Europako mugaz gaindiko bake itun zaharrenaren ekitaldian, hain zuzen.

Akordioa 1375ekoa da, eta Erronkari eta Baretos (Berno) mugaldeko ibarren artean larreen gainean izandako lehiei amaiera eman zien. Ekitaldia urtero ospatzen da uztailaren 13an, eta Baretos ibarreko abeltzainek Izabako, Gardeko, Urzainkiko eta Uztarrozeko (Erronkaribar) mugaz gaindiko bizilagunei espezieetan ordaintzen diete (hiru behi emanda) haien larreak erabiltzeko eskubidea izan dezaten.



Gaur eguerdian egin den ospakizunaren une bat.

Ematen diren abelburuek "sine macula" (orbanik gabekoak) izan behar dute eta hortz-hagin, ile eta adarkera berdintsukoak. Animaliak eman aurretik, Erronkaribarreko eta Baretos ibarreko alkateek, inguruko janzkera tradizionala jantzita, lehiei amaiera eman zien bake-konpromisoa berritzen dute. Hori era sinbolikoan zigilatuta geratzen da San Martingo harriaren gainean eskuak jarri (Espainia eta Frantziaren arteko 262. muga adierazten du) eta "pax avant" esanez (bakea hemendik aurrera) bertaratutako guztiek aldi berean errepikatzen dutena adiskidetasuna eta lankidetzat adierazteko.

Ordainketaren jatorriaren eta arrazoiaren berririk ez dago. Mendeetan zehar, ordainketa hori etengabe egin zen, harik eta, XIV. mendean, bertan behera geratu zen arte, eta egoera horrek liskar ugari eragin zuen. Gorabehera horiek izan ziren arbitrajeko epaiaren iturri, 1375 etik etenik gabe ospatu dena.

Ituna Antso herriko arbitrajeko epai batean oinarrituta dago, aldeak Pirinioetako Aragoiko udalerririk horretan –orduan auzilariez bestelako erreinu batekoa zen– beraien gaiak erabakitzeko bitartekari baten bila aritu ondoren.

2011. urtean Nafarroako Gobernuak ekitaldia Kultur Intereseko

Ondasun Immaterial izendatu zuen eta Nafarroako Turismo Intereseko Jaia.